

Enkarterri - Meatzaldea: Burdinaren ibilbidea



	Museoa		Burdinola
	Monumentu-multzoa		Funikularra
	Baseliza		Portua
	Dorrea edo jauregia		Golf-zelaia
	Ikuspegi panoramikoa		Hondartza
	Atsedenlekua		Surf-eskola
	Txakoli-upeltegia		Abentura-parkea
	Monumentua		Padurak eta dunak
	Meatze-auzoa		Kiskalketa-labea
	Zamalekua		Bide Berdea



Enkarterrietako Museoa



Sopuerta

Sopuerta Enkarterriko bihotz politikoa izan zen mendeetan zehar. Abellanedara uzoan, mahastiz inguratutako muino baten, Abellanedako **Batzar Etxea** dago. Garai batean, Enkarterriko bailaretako ordezkariak biltzen ziren bertan, eskualdeko gobernantza erabakitzeko. Antzinako eraikinean eskualdeko historiaren zaindari den **Enkarterrietako Museoa** aurkituko dugu.

Sopuertak lasaitasuna arnasten du orain, baina XX. mendean **mugimenduz beteriko meataritza-gunea** izan zen. La Linde antzinako meatzari auzoan ondare industrial izendatutako bi **kiskaltze-labe** altxatzen dira, minerala kiskaltzeko erabiltzen zirenak. Aldamenetan hainbat **ibilbide eta aisialdi gune** daude.

Dorretxeak, Erdi Aroan Enkarterri odol ez tindatu zuten leinu-guduen lekuko mutuak, nonahi aurkitzen, dira Sopuertan. Horiez gain, beste eraikin ugari erakarriko dute bisitariaren arreta. Nabarmentzekoak dira honako hauek: **Loizaga jauregia** eta **San Bartolome eliza**, **Okendo Goikoa** eta **Okendo Beheko jauregiak**, **San Roke ermitak** eta bertako **zezen-plazak** osatzen duten multzoa edo **Mercadilloko Santa Maria eliza**, besteak beste.



Zierbenako portua



Zierbena

Zierbena kostaldeko udalerria da, eta bisitatu beharreko bazter ugari ditu. Zierbenako portuak betiko **marinel-xarma** gorde du eta arrantza- eta kirol-ontziez gainezka azaltzen da oraindik ere. Xelebreak dira badian zehar hain ugari diren marinel- giroko jatetxeak. **La Arena hondartza** (Bizkaiko bigarrena hedaduraz) Zierbenan eta mugakide den Muskizen zehar zabaltzen da. Aparteko lekua da surfean edota bestelako ur kiroletan aritzeko.

Ondareari dagokionez, XII. mendeko San Roman parrokia nabarmentzen da, 1880an berreraiki zutena. Gainera, Zierbena gailur ospetsuz inguratuta dago; esterako, **Serantes** edo **Punta Lucero** mendiak. Azken honek, oso garaia ez den arren (307 m), La Arena hondartzaren sekulako ikuspegiak eskaintzen dizkigu eta **gerra-aztarnez** josita dago (adibidez, bunkerrak, tunelak eta arrollak).

Mendi-ibilbideak

Ibilbideak bizikletaz

Burdinmendi Bide Berdea



Loizaga Dorrea



Galdames

Meatze-iragana nonahi islatzen da Galdamesen; esaterako, La Elvira, El Saucio edo Atxuriaga guneetako **industria-aztarnetan**, gaur egun aisialdirako gune bihurtu direnak. **Antonio Trueba** idazlea Galdamesen jaioa zen eta meatzeen inguruko baldintza gogorak kontatu zituen bere eleberrietan.

Aire zabaleko aztarnategi horietako oinazeek, ordea, luxuzko eta glamourreko mundu bati ematen diote bidea Concejuelo auzoan. Bertan, mendi, baso eta mahastien artean ezkutatuta, **munduko Rolls-Royce bildumarik handiena** gordetzen duen XIV. mendeko **Loizaga Dorrea** dago. Auto guztiak bikainki kontserbatuta daude, abiarazteko prest.

Galdamesko paisaia malkartsuak ezin hobeak dira ingurua oinez edo bizikletaz **esploratzeko**. Antzinako tren geltokian Burdin Mendien Bide Berdearen informazio zentroa dago. San Pedro auzoa toki zoragarria da gorputza indarbertitzeko eta Galdamesko gastronomiaz gozatzeko, **Martínez de las Rivas** ontzi-jabearen omenez egindako estatuaren aurrean. Adituen arabera, Bizkaiko ohorezko monumenturik bikainenetakoa da.



Meatze-paisaiak



Ortuella

Meataritzak moldatutako **ilargi-panoramikaz** gozatzeko behatoki zoragarria da Ortuella. Orkonerara auzoan **Meatzaldea – Peñas Negras Ekoetxea** dago. Lurpearen utsiapenak moldatutako panoramikak behatzeko gune estrategikoa da. Meataritzaren aztarnak, izan ere, udalerrri osoan agertzen dira. Golifar auzoan, esaterako, **Apold-Fleisner kiskalketa labe** erraldoi bat dago, kultura-ondasuna izendatu zutena.

Azken meategiak itxi ondoren, Ortuellak bere burua berrasmatu zuen, betiere meatze-iragana ahaztu gabe. Garai batean aire zabaleko aztarnategiak zeuden lekuan, **Severiano Ballesterosek** diseinatutako **Meatzegi Golf** zelaia dago gaur egun. 72 pareko eta 18 zuloko zelaia du, 6 kilometro baino gehiagoko luzerarekin.



El Pobaleko burdinola



Muskiz

Euskadiko meatze-barruti handienetako bat egon zen Muskizen garai batean. Pobefia eta Kobaron arteko eremuan zabaltzen zen, eta oraindik ere aztarna ugari aurki ditzakegu bertan. Barrutiaren ordez, itsasoko labarren ertzetik bihurka doan pasealeku lasaia aurkitzen dugu gaur egun: **Itsaslur**. Bertatik primeran ikus ditzakegu **La Arena hondartza** eta itsasaldien izugarrizko atzera-egitea.

Itsasoarekin bat egin aurretik, **Barbadun ibaiaren** urek 15 kilometroko monumentu multzoa osatzen dute, errota, burdinola eta zubi zaharrez josita. Aztarna horien artean **El Pobaleko** burdinola nabarmentzen da, bere sugarra XVI. mendetik piztuta mantendu duena. Oraindik ere zur eta lur utziko zaitu errementariak burdinola argituko duen **erakustaldi harrigarri** batekin.

Muskizen, halaber, Bizkaian gaztelutuz har daitekeen dorretxe bakarra dago, kanpoko barrutia dela eta. **Muñatones** gaztelua, Barbadun ibaia eta harresiz babesturik, Erdi Aroko leinueen arteko **gatazka odoltsuenen** lekuko izan zen.



Larreinetako funikularra



Trapagaran

Larreinetako funikularra 1926an inauguratu zen burdin-aztarnategietara merkantiak garraiatzeko. Ibilbideak burdinaren uztiapenak modelatutako sekulako sakonuneak eta paisaiak agerian uzten ditu. Hemendik oso gertu, kilometro bat baino gutxiagora, **La Arboledako meatze-herrixka** dago, Europako hobekien kontserbatuetako bat. Erabat zaharberritutako etxe bat bisita dezakegu herrixkan. Helburua lurraren errailetan larrua arriskatu zutenen oroitzapena bizirik mantentzea da.

Meataritzak moldatutako paisaez gozatzeko dugu ibilbidean, eta **inguruneak bizi duen birsorkuntza** hautemateko aukera izango dugu (oraindik dago martxan prozesua). Gainera, **industria-aztarna eta -egitura** ugari aurkituko ditugu.



Concha II meategiaren korta



Abanto - Zierbena

Abanto-Zierbena Bizkaiko meataritza-bihotza da. **Concha II** meatzeko ikuspegi zirraragarrien aurrean, **Euskal Herriko Meataritzaren Museoa** gaur oroimena baino ez den mundu batera garamatza. Iragan horrek izugarrizko panoramikak laga dizkigu eta lurralde honen nortasuna definitu du.

Abanto-Zierbena **Trianoko Mendien** inguruan dago. Mendi horiek jada ezagunak ziren erromatarren garaian, beren errailetan gordetzen duten burdinaren ugaritasuna eta kalitatea direla-eta. Meataritzak Abanto-Zierbenako paisaiak antzemanezin bihurtu zituen, eta bertakoen izaera baldintzatu zuen. **Gallarta auzoa**, adibidez, XX. mendeko lehen hamarkadetan lekuz aldatu zuten, lurpeko aberastasun mineralak ustiatzeko.

90eko hamarkan, azken meatzeak itxi zituzten, eta natura **birsorkuntza** prozesuari ekin zion. Hala ere, garai hartako aztarna ugari ikus ditzakegu oraindik ere. Aintzira eta berdegune bihurtutako aztarnategiez gain, **antzinako meatze-etxe** ugari daude udalerrian, batez ere Balastera, Putxeta eta Santa Juliana auzoetan.

Burdinaren ibilbidea

Burdinaren ibilbideak Bizkaiko antzinako **meatze-bihotzean** barneratzen gaitu. **Meatzaldeari** izena eta nortasuna eman zizkioten **panoramika harrigarriek** eta aztarna kontaezinek garai hailetako memoria gordetzen dute. Aire zabaleko aztarnategiak (gaur egun aintzirak eta berdeguneak direnak), fabrikak eta beste aztarna ugari nonahi agertzen dira Enkarterri eta Meatzaldeko **industria-erraietatik** abiatzen den ibilbide honetan.

Aspaldi itxi zituzten meategiak, baina langileen deiarar oraindik ere entzun dezakegu. Tradizioak dio **Trianoko Mendi**etan Athleticen garaipenak ospatzeko abesten dugun oihua jaio zela: **Aliron!** “All iron” antzeko zerbait oihukatzen zuten meatariek burdin hutsa agertzen zenean, ordainsaria jasetzeko asmoz.

Bidaia bat proposatu nahi dizugu, Burdin Mendi

Kantauri Itsasoko meatze-zamalekuetaraino. Bidal

dian sekulako ikuspegiak, museoak eta txoko paregabeak aurkituko ditugu. **Burdin Mendien Bide Berdeak**, Bizkaiko luzeenak, ibilbide zoragarri hau egituratzen du.

<p>Zer ikusi</p> <p>Euskal Herriko Meataritzaren Museoa 946 363 682 www.meatzaldea.eus</p> <p>El Pobaleko burdinola 629 271 516 www.bizkaikoa/bizkaia.es</p> <p>Enkarterrietako Museoa 946 504 488 www.enkarterrimuseoa.eus</p> <p>Loizaga Dorre 672 248 759 www.torreloizaga.com</p> <p>La Arboledako meatzarien etxea 946 363 682 www.meatzaldea.eus</p>	<p>Muñatones gaztelua 629 271 516 www.bizkaikoa/bizkaia.es</p> <p>Larreinetako funikularra 946 604 008 www.euskotren.eus/ euskotren/funicular.eus</p> <p>Ekoetxea Peñas Negras 946 338 097 www.ekoetxea.eus</p> <p>Ekoetxea Meatzaldea 946 051 275 www.ekoetxea.eus</p>	<p>Bizkairoute Bizikleten alokairua (Bide Berdea) 627 658 391 / bizkairoute.es</p> <p>Mendian Zaldiz Zaldi-ibilaldiak 649 988 473 / mendianzaldiz.com</p> <p>La Arena Surf Center 946 366 381 www.laarenasurfcenter.com</p>	<p>Jatetxeak</p> <p>SOPUERTA: Basilio 946 504 129</p> <p>Mendiondo 946 504 452 www.mendiondo.com</p> <p>Batz Casa Roble 946 504 734</p> <p>MUSKIZ: Mugarri 946 707 799 www.restaurantemugarri.com</p> <p>ZIERBENA: Gloria 946 365 013 www.restaurantegloria.net</p> <p>Batzoki Zierbena 946 366 374 www.hotelkaiarural.com</p>	<p>Ostatuak</p> <p>SOPUERTA: Pikatzarena 617 471 936 www.pikatzarena.com</p> <p>Bizkar Bare 659 033 612 www.bizkar-bare.com</p> <p>GALDAMES: Areitz Soroa 685 790 558 www.albergueareitzsoroa.es</p> <p>MUSKIZ: Mugarri 639 651 057 www.casaruralmugarri.com www.apartamentosmugarri.com</p> <p>Las Palmeras 946 706 392 www.laspalmerashotelrural.com</p>	<p>ZIERBENA: Kaia 946 366 374 www.hotelkaiarural.com</p> <p>ORTUELLA: Ortuella 946 353 204 www.hotelortuella.com</p> <p>Bertoko produktuak</p> <p>Horno de leña Saratxaga 660 696 511 www.pancaserosaratxaga.es</p> <p>Txurruta Txakolina 946 104 869 www.txurrutvermut.com</p> <p>Carnicería Fernández Terreros 946 706 227 www.artecarne.com</p>	<p>Vermut Txurrut 946 104 869 www.txurrutvermut.com</p> <p>Garraio publikoa</p> <p>Renfe Bilbao - Muskiz Bizkaibus Bilbao - Muskiz Santurtzi - Balmaseda</p>
--	---	--	--	---	--	--